



2017 - JAIALDIA



- **Eguna:** Ekainaren 16a **Ordua:** 19:00ak
- **Lekua:** Udal kiroldegia
- **Ikasleen sarrera:**
 - Haur Hezkuntzako denak eta Lehen Hezkuntza 1. eta 2. mailakoak futbol zelai ondoko sarreratik.
 - Lehen Hezkuntza 3.,4., 5., 6. eta D.B.H. 1. Mailakoak errepide aldeko sarreratik (Landeta).
- **Ikasleen irteera:**
 - Haur Hezkuntza 2 urteko ikasleak, **beraien emanaldia bukatutakoan**, irakasleek kanpora lagunduko diete futbol zelai aldeko atletik, gurasoek hor gela bakoitzari izendatutako lekuan jaso ditzaten.
 - Haur Hezkuntza 3 urteko ikasleak, **beraien emanaldia bukatutakoan**, irakasleek kanpora aterako dituzte futbol zelai aldeko atletik, gurasoek hor gela bakoitzari izendatutako lekuan jaso ditzaten.
 - Haur Hezkuntza 4 eta 5 urtetako eta LH1. eta LH2. mailetako ikasleak emanaldia amaitu ondoren, kantxan geldituko dira irakasleekin. Behin jaialdia amaitutakoan gurasoek atzeko atletik (tenis pista ondotik) sartu eta beraien seme alabak kantxan jasoko dituzte eta futbol zelai ondoko atletik edo errepide ondoko atletik (Landeta) irtengo dira.
 - Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailetakoak, D.B.H. 1. mailakoak eta Batxillergoko ikasleak, errepide aldeko atletik (Landeta) irtengo dira.
- **Ikasleek 18:45etan sartu behar dute, ordura arte, gurasoen ardurapean egongo dira.**
- Gurasoei arren eskatzen zaizue, zuen seme-alabak tutoreekin utzi ondoren (18:45etan), gure antolaketa errespetatuz, **KANTXATIK IRTETZEA.**
- Barrura sartzeko **OINETAKO AZPIAK GARBI** izan behar dituzte.

EGITARAUA

- **D.B.H. 1. maila: ZIRKORRIKA**
 - **Haur Hezkuntza 2 urte: POZIK DAUKAT BIHOTZA**
 - *Beraien saioa bukatutakoan 2 urteko ikasleak gurasoengana bideratuko dira.
 - **Haur Hezkuntza 3 urte: SAUTRELA**
 - *Beraien saioa bukatutakoan 3 urteko ikasleak gurasoengana bideratuko dira.
 - **Haur Hezkuntza 4 urte: EUSKARAZ BIZI NAHI DUT**
 - **Haur Hezkuntza 5 urte: EUSKARAREN TXANTXANGORRIA**
 - **Lehen Hezkuntza 1 eta 2: ZAZPIAK BAT**
 - **Lehen Hezkuntza 3 eta 4: ZURI EDO BELTZ**
 - **Lehen Hezkuntza 5 eta 6: POLIKI- POLIKI DANTZAN**
 - **Intsignia banaketa 25 urte Ikastolan lanean daramatzaten irakasleei.**
 - **Batxillergoko ikasleei orla banaketa.**
 - **Abestia: "IKASTOLAK 50 URTE".**
- MILA ESKER LANEAN, MODU BATEAN ZEIN BESTEAN, ARITU ZARETEN GUZTIEI !!!**

OHARRAK

- Norberak bere eserlekua hartuko du, ezingo da besteentzako gorde.
- Trafiko eta aparkaleku arazoak ekiditeko, oinez joatea gomendatzen da.
- Harmailetako eserlekuetan eseri behar da, eskailerak libre utziz.